

## GIZONAK BERDINTASUNAREN ALDE SEME-ALABEN HAZKUNTZAN ETA HEZKUNTZAN

Seme-alaben zaintza, hazkuntza eta hezkuntza **familia** osatzea erabaki duten helduen erantzukizuna da.

[Bideo honetan, Kirmen Uribe idazleak, bere hitz eta bertsoekin seme-alaben hazkuntza eta hezkuntza “besarkatzen” du.](#)

- Bideoa Gurasotasuna horrialdean dago argitaratuta (Eusko Jaurlaritzan)

Heldu eta adin txikikoen artean ezartzen den elkarrekintza, adin txikikoen eskubideen errespetuan oinarritu behar da. Testuinguruari dagokionez, adin txikikoen garapen osasuntsua errazteko, etxean, egonkortasun emozionala, gatazka eza eta baldintzarik gabeko maitasuna eta babesaren bezalako printzipioak izan behar dira zutabe.

Familia eratzen duten egungo eredu berriek ez dute ezaugarri bereizturik aurretiaz aipatutako oinarritzko zutabe horiek aintzat ez hartzeko. Emakume-Emakumeak-Gizon-Gizonak, finean, seme-alaben hazkuntza eta hezkuntzaren inguruko erabaki hartzeko ardura duten helduek aintzat izan beharko lituzkete. Gainera, gizarteak eta instituzioek, hazkuntza eta hezkuntza hori erraztu beharko lukete, [kontziliazio](#) bidez, hazi eta hezteko aldeko testuinguruak sustatu eta bermatzeko.

Dibortzio edota banantze kasuetan, adibidez, legeak onartua, zaintza partekatuen aldeko joera dago. Horrela izanik, banandu aurretik, norbanako bakoitzak, ume bat izan eta hezteko erabaki bateratua hartzerakoan, kontziente izan behar du, adin txikikoarekiko, bere gain hartzen duen erantzukizunaren garrantziaz.

Beraz, edozein erabaki hartu aurretik, ondorengo premisak izan behar dira kontutan:

- Erabakitzen denarenganako elkarrekiko konfiantza

- Parte hartze aktiboa, hitz egin edo hitzartu denarekiko
- Heldu bakoitzak, elkarrekin bizi edo ez, bere seme-alaben oinarrizko beharrian afektiboak, sozialak... ase behar ditu baldintzarik gabe. Horretarako, komunikazioa egokia eta argia behar du izan, baita ama eta aita bezala, nork bere erantzukizuna betetzea.

**Michael Lamb**-ek, Cambridgeko Unibertsitateko Familia Psikologian katedradunak, familia desberdinekin egiten duen eguneroko lanaren bidez, familia-testuinguruan, aktiboki eta ezarritako rol bereiztuak gaindituz, seme-alaben heziketa aurrera eramaten duten amen eta aiten inguruko ikerketa garatu du. Elkarrizketa bidez, ikerketa honen datuak jaso dira. Datuen arabera, familia funtzionamendu honek, eguneroko dinamikak edota jarduerak errazteaz gain, seme-alabek, beraien familia testuinguruarekiko eta testuinguru sozialarekiko ikuspuntu zabalago bat berenganatzen dute. Datuek ere zehazten dute, aitaren inplikazioa hasieratik ematen denean, mantentzen dela umeen garapenean zehar, nerabezaroan ere harremana hobe delarik. Horrez gain, seme-alaben hezkuntza maila altuagoa errazten dela islatzen dute.

**ETXADI.** [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](#)  
**Egin zure kontsulta telefono bidez:** 94 405 15 49 (Asteazkenetan: 11:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30era) **edo** [www.etxadi.org](http://www.etxadi.org) **webgunean** **Lea-Artibaiko Amankomunazgoko inprimakia betez.**